

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onestea 4/2020 kreditu gehigarriaren espedientea

Bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez 4/2020 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, honela:

GASTUEN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
333.601.005	Luiaondoko "erabilera anitzeko espazioa egokitzea (Patxita etxea)" proiektua idaztea	20.328,00
323.601.006	Ikastolako berokuntza proiektuaren aurrekontua eguneratzea	400,00
920.623.010	Makinak erostea	1.389,04
166.226.020	Isurketak kontrolatzeko kanona. Murgako industrialdea	939,74
920.227.000	Udal bulegoak garbitzea	7.885,58
151.227.077	Uholde arriskuari buruzko azterketa. HAPO	81.100,00
Gehitu beharreko gastuak, guztira		112.042,36

Zenbateko hori baliabide hauen bidez ordainduko da, eta beraz, espedientea parekatuta ageri da; hau da, defizitik gabe:

SARREREN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
87001	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	112.042,36
GUZTIRA		112.042,36

Behin betiko onespena emateko erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2020ko azaroaren 16a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA